

ARRASATE

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Eguaztena / 2002ko martxoaren 27a / 579. zenbakia

Txatxiartistak

Txatxilipurdiko
antzezlariek
obra berria estreinatu dute



ORAIN ETA HEMEN: KULTURA ETXEA/8 • KIROLA: JON APERRIBAI, HIRUGARRENA OÑATIN/11



Jarri lasai eta musikaz gozatu.

Musikaz blai, SOINUZ BLAI.

SOINUZ BLAI

- Eguenetan, 21:00etan
- Errepikapena egubakoitzean, 21:00etan
- Aurkezleak: **Maidar Albes** eta **Ugutz Usandizaga**



KALEINKESTA/ Ze erakutsiko zeuskio kanpotik hona bizi izetera datorren bati?



JUANA MARI ARREGI
Etxekoandrie



NEREA PILDAIN
Langillie




IMANOL IÑARRA
Langillie



JUDITH RUIZ DE MUNAIN
Langillie



IÑAKI LEIBAR
Langillie



SEGUNDO URIARTE
Langillie

Arrasateko gauzaren bat ikusi gura badau, Monterronera eta Santa Barbara erueneko neuke, Arrasate dana ikusteko; Urkulura; eta gero, Arantzazura, Oñatira eta inguruetara.

Arrasatetik Monterron, oso tipikue da-eta; gero, Donostia, oso politte dalako eta Bilbo, Guggenheim oso modan daguelako. Tabernak be erakutsiko neuskio, girue ikusteko.

Neu kanpokue naz, eta hemen inguruen Urkulurako lakue ikusi dot. Nahiko ondo dago antolatuta pasiuek emuteko, pistak... Santa Barbara parkie be politte da.

Arrasaten parkiek erakutsiko neuskio, baitta Portaloia eta gaueko martxie be, zapatuetan, batez be. Inguruen, Bergara eta Oñati. Eta bazkaltzera baserriren batera erueneko neuke.

Tabernak eta gabeko girue. Bestela, Alde Zaharra barritute dago, eta hori be erakutsiko neuskio, arkuek... Inguruko herrixek be politte die, baiñe nik neuk Modragoe ezaguketan dot.

Monterron, adibidez, eta alde zaharra; Santa Barbara... Mondragoetik kanpo, Aramaixo gustetan jat, edo Udala, edo edozein herri txiki; eta Aretxabaletako auzuniek be bai.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK SEBER ALTUBEKO KOMUNAK Irakurle batek aditzera eman digunez, Seber Altuben dauden herriko komunak hondatuta egoten dira sarri. Irakurle berberak oso ondo deritzo halako komunak jartzeari, baina Udalarari edo dagokionari komun horiek sarriago berrikustea aholkatu dio. Hori dela eta, erabiltzaileek biziki esker-tuko lukete, beharra dutenean, komunak ondo aurkitzea.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /6

Irlandar bat gure artean

Liam D-Silva iraillean etorri zen Mondragoera. Ingeles eskolak eman eta errugbian jokatzeko du.

ORAIN ETA HEMEN /7

Bartzelonako gailurrean

Bartzelonako gailurreko ekitaldi alternati-boetan izan zen Pako Morales ESK-ko kidea.

KIROLA /10

Errugbian liga amaitu dute

Mondragoeko taldeak goiko postuetan amaitu du liga, eta gutxigatik ez da txapelidun izan.

ASTEKO DATUA

3,86

MILIOI EUROKO AURREKONTUA KULTURA ETXERAKO

Ospitale Zaharreko kultura etxe berriak 3.868.552,46 euroko aurrekontua izango du. Haur eta nagusientzako liburutegiak, erakusketak eta hitzaldi aretoak eta ikasketak-gunea jarri nahi dute han.

BESTEKEKESANA

“

MUN, eguneroko lanaren aurka agertzen diren organoak zuzentzen dituztenekiko

salaketa gogorrean jakinarazi nahi genuke. Ikasleriaren eskubideen ukazioa ere salaketarako derrigorrezko hipside dugu. Ikasleriak urteetan bere grebarako eskubideak bermatzen zuten erakundearen eskubideak bortxatuak izaten ari dira. Lotsagarria da MUK barne araudian agertzen duen greba araudia. Grebarako aurkezten diren baldintzek esku-eskura uzten dizkiete zuzendaritzako arduradunei erabaki arbitrarioak eta jarreraren prepotenteak. Otsailaren 22rako grebarekin ikasleen %78 ados egon arren, zuzendaritzaren erabakiaren ostean, deialdia bertan behera uztea erabaki zuten”.

AITOR PÉREZ
EUSKALDUNON EGUNKARIA/02-03-21

HERRITARRENBERBAK/ Amaia Martiartu



Euskal Herritik Kaliforniara

Anaaaaaaaaa!!!! Ze moduz Frisco-n? Hamen, ondo esan bihar, udaberrixa heldu jaku ta amatxokin pasiau ta pasiau nabil azkeneko partez. Ta mundu interesgarri bat deskubridu dot pasio hauetan, Ana: geure amaren lagun mundua. Leidu, leidu euren istorixiak:

Mila (65 urte): “Semiak jaten datoz, banoie bazkarixoi prestaketan. Zereginik ez daukogu ta badakitzu, entreteniduta gabitz holan. Hala ta be, horreik, eskertu, bat be ez”.

Sole (64): “Kurtsillo? Internet? Ez, ez, nik holakoik ez. Lobak zaindu bihar dittut. Trasto batzuk die, baiñe zelako poztasuna emuten duskuen, ezta?”.

Karmen (68): “Lau ume segidan, Amaia... ta orduan ez umezainnik, ta ez umezaintzarik, ta ezer be ez. Ezin ailegau danera. Ta gizona lanetik etorri, etxera sartu ta kalera barriro lagunekin, baiñe lagundu, bat be”.

Koro (66): “Hamar urte, neska, hamar urte palizak jasoten separau arte”.

Kontxi (71): “Oix! Ixa seirak! Etxera noie, senarrari pastillak emuten. Lehenengo bihotzekua emun zutzen ta ointxe tumorra harrapau dutzie. Apurtxo bat despejetako urtetan naz, bestela zoratu egingo gare.

Lehen umiak zaindu bihar ta oin senarra, ta gaiñera, enfermera billakatu bihar, karkarkar!”.

Euxebe (58): “Neu b este batekin juntau? Ezta kaskautu be. Barriro neska? ¡Alee por ahí!”. Eta abar.

Hirurogeita piku urtian egindako lan izugarriagaittik bidezko pensinua jasoten egon biharko litzakezen emakumien mundua euren ahotik entzun dot. Ta leidu dittuzun istoriotxo horreik danok ezaguketan doguz hamen. Baiñe guk, euren seme-alabok, esaten dogun moduan: “Koittaduak, holan hezittu die ta ze egingo dutzegu, ba, pozik bizi die”. *Y una mierda!*

Ana...to be continued.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZTATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bollinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 29**
Español. Araba etorb. 17943 79 18 65
- ZAPATUA, 30**
Azkoaga. Ferrerías 1.943 79 15 15
- DOMEKA, 31**
Corcuera. Maisu Aranbarri 1943 79 22 26
- ASTELEHENA, 1**
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30
- MARTITZENA, 2**
Corcuera. Maisu Aranbarri 1943 79 22 26
- EGUAZTENA, 3**
Irizar. Erguin 11943 79 09 74
- EGUENA, 4**
Amezua. Santa Marina 32943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea.943 03 53 00
Igalatorioa.943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak.943 79 39 00
Emakumeak943 79 44 11
Buru osasunerako etxea943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak112
Gurutze Gorria.943 76 55 76
DYA943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera17:00etatik 08:30era
Zapatuetan14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan.egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan.09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak943 03 53 11
• Ikuskatzailea.943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak943 45 87 44

- ERTZAINZTA**
Arrasate943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua.943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua)943 79 09 00
Argindarra (Iberduero)943 12 01 62
Gasa900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak943 79 12 22
PESA.902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz)	Domeka 10:00 (elebiduna)
11:00 meza nagusia (euskaraz)	11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna)	12:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)	
12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza
19:00 (gaztelaniaz)	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)
Zapatua 19:00 (elebiduna)	
Domeka 11:30 (euskaraz)	
12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Energia berriztagarrien ikastaro teknikoa prestatzen dabilta. Informazio gehiago, 679 69 33 18 telefono zenbakian.

UMEENDAKO IPUINAK
Apirilaren 9an, martitzenean, Virginia Imaz bost eta zortzi urte arteko umeendako ipuinak kontatuko ditu. Virginiarekin batera, Txefo Rodríguez musikaria arituko da. 17:00etan, Santa Marinako liburutegian izango dira eta 18:30ean, Monterronen.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Apirilaren 11n, eguenean, *Padre Patrón* filma izango da ikusgai Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

KONPAS ETA KAXA IKASTAROA
Iñaki Bruñak eta Gazte Sailak Konpas eta Kaxa Flamenko ikastaroa antolatu dute apirilaren 15ean, 22an eta 29an, eta maiatzaren 6an eta 13an. Irakaslea Angel López izango da. Matrikula 20 euro izango da.

1940KO EMAKUME KINTOAK
1940ko kintoen emakumezkoen batzordeak bilkura egingo du apirilaren 20an. Interesatuok izena eman Aldape tabernan, apirilaren 13a baino lehen.

AEDrenAGENDA

AED-REN LAN-POLTSA
AEDk lan-poltza zabaldu behar du. AEDn lan egin gura baduzu, bidali curriculum Pablo Uranga 6ra.

AED-REN AUZOLANDEGIAK
AEDk auzolandegiak antolatu gura ditu udan. Baionako AEK konpontzea dute helburu, eta lantaldea osatu gura dute, hara joateko.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Santa Barbaran gaztelua aurkitu zuten

Arkeolan Elkarteko partaideek Santa Barbarako gazteluko aztarna aurkitu zuten. Gazteluaren hormekin eta dorreekin egin zuten topo. Aurrez, gazteluaren gainean zurrumurru asko izan ziren. XVII. mendean, Santa Barbara zeritzon ermita eraiki zuten, eta aztarnen izen bera jarri.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Mozkotia”



Pertsona txikia eta zabala.
-Errezill aldeko mozkote batekin ein juan burrukan.

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



ANDER GILLEANA

Arrasate Irratia e-Debagoienaren aurkezpenaren izan zen.

Apirilaren 8an itzuliko da Arrasate Irratia

Aste Santuko oporrak hartuko ditu irratiak, eta hortaz, apirilaren 8ra arte ez gara zuzenean izango. Hala ere, Arrasate Irratia entzuten jarraitzeko aukera izango duzue. Elkarrizketekin osatutako hainbat saio prestatu dizkizuegu. Hala, astean, 09:00etatik aurrera eta jaiegunetan, 11:00etatik aurrera, eskainiko dizkizuegu. Gainerako orduetan, berriz, hainbat estilotako musika izango duzue entzungai. Hortaz, FMko 107.7 oporretan izango duzue.

Saio arrakastatsua astelehenean

Joan den astelehenean, zuzenezuzenean eskaini genizuen e-Debagoiena proiektuko aurkezpen ekitaldia. Herritar askok jarraitu zuten aurkezpena Arrasate Irratiaren bidez. Leintz Gatzagako Gatz Museoan estudio txiki bat jarri zuen Arrasate Irratiak, eta handik egin genuen zuzeneko emanaldia. Halako ekitaldi bat zuzenean egiten genuen lehenengo aldia izan zen, baina hemendik aurrera gehiago eskaintzeko asmoa dugu.

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 24	4 °C
MAXIMOA Eguaztena, 20	26 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 20	26 °C	6 °C	- (l/m²)
Eguena, 21	24 °C	6 °C	- (l/m²)
Egubakoitza, 22	24 °C	6 °C	- (l/m²)
Zapatua, 23	23 °C	4 °C	- (l/m²)
Domeka, 24	20 °C	4 °C	- (l/m²)

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena
- ASTELEHENA**
21:00 MIR
- MARTITZENA**
21:00 Hi bizi hadi
- EGUAZTENA**
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen
- EGUENA**
21:00 Gailurretik/Mikelenea
- EGUBAKOITZA**
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak
- ZAPATUA**
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)
- DOMEKA**
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

ASTEABIHITZETAN

Kultura Astea institutuan

Arrasate-Aretxabaleta Institutuak eguaztenean eman zion hasiera urtero egiten duen kultura asteari. Goizean, poesia eta musika elektronikoaren gaineko lantegiak izan zituzten lehenengo eta bigarren batxilergoko ikasleek. Horrez gain, filmak ikusteko aukera, kirola, hitzaldiak eta talogintza izan zituzten lantzeko. Horrez gain, eta institutuaren 25. urteurrenaren barruan, eguenean, ikasleek darabilten euskararen kalitateaz hitz egin zuen Uri Ruiz Bikandi durangarrak.

Eta, apirilean eta maiatzean segituko dute ekitaldiek. Apirilaren 16an, adibidez, Andoni Egaña bertsolariak eskainiko du hitzaldia.

Urrezko Q saria Euskadiko Kutxarendako

Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik jaso zuten Euskadiko Kutxako ordezkariak urrezko Q saria. Orain dela hamalau hilabete lortu zuen zilarrezkoa, baina, kalitatearen alde lanean jarraitu dute eta orain, urrezko Q ere eman diote. Eta, hain justu, Euskadiko Kutxa da Europan urrezko Q saria jasotzen duen lehen erakunde finantzarioa.

Gaur egun, 1.600 lagunek baino gehiagok egiten du lan Euskadiko Kutxan.

E-Debagoiena aurkeztu zuten

Debagoiena ahalik eta bizkorren informazioaren gizartean sartzeko proiektu batzuk abian ipiniko dituzte e-Debagoiena egitasmoaren barruan. Guztira, zortzi proiektu izango dira: Cyber-industrialdeak proiektua, Discol proiektua, Iparcom proiektua, E-administrazioa proiektua, Sare proiektua, Hezkuntza XXI proiektua, Biblio 21 proiektua eta GoienaNet proiektua. Goienak atari bat jarriko du Interneten, herritarrei informazio interesgarria emateko.



Orioko atentatua gaitzesteko

Juan Priede zinegotzi sozialistaren hilketa gaitzesteko, kale bilkura egin zuten Arrasaten joan den egubakoitzean. Ohiko moduan, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak deituta hamabost minutuko kale bilkura isila egin zuten zenbait herritar eta zinegotzik.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

e-torkizuna

Aspaldi etorkizuntzat genuena bertan dauka-
Agula pentsatzen dut askotan. Kutsu filosofiko edo existentzialista daukan esaldi honen atzean zera esan nahi dut: gure haurtzaroan eta lehenengo gaztaroan etorkizun moduan jartzen genituen urte eta datak atzean gelditzen doazela. Gogoan daukat Joko Olinpikoan, EXPOren eta "Ameri-

kako aurkikuntza"-ren 92 famatu hura urrun ikusten genuela. Jakina, baita munduaren bukaera ez baina etorkizun urrunaren data edo zenbaki sinbolikoa zen 2000 hura ere.

Dena dela, ez dakit Orwell-ek 1984. urterako agindutako gertaerak bezalaxe, bigarren milurtekorako esandako guztiak bete ez ote diren: espazioko bidaia

turistikoak, klonazioak, bideokamerak nonahi, plastikozko janaria...

Horrez gain, teknologia berriak izugarri hedatu dira, eta hemen bertan, e-debagoiena proiektuaren bitartez, behar dugun guztia etxetik egin ahal izango dugu laster. Ez da gauza makala, ez horixe, eta ziur ez dagoela urrun. Hala ere, gogoeta bat: dena etxetik egingo dugula iragarri dute. Ez dakiguna da zein etxetik eta zelan eskuratuko ote dugun etxea!

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

EUSKARAREN OFIZIALTASUNAREN ALDEKO EKIMENAK HERRIAN ETA BERGARAN

Joan den astean, Euskal Herrian Euskaraz taldeak bultzatuta, hainbat ekimen egin zituzten herrian, baita Bergaran ere. Arrasaten, joan den astean, Euskal Herrian Euskaraz taldeko partaideek Seber Altuberen, Ospitale Zaharreko fatxadan, hainbat marrazki egin zituzten; guztiak, hizkuntza eskubideen eta

euskararen ofizialtasunaren alde. Horrez gain, joan den egubakoitzean, eta lelo berarekin, kale bilkura egin zuten hainbat herritarrek Seber Altuberen bertan. Ildo berean, zapatuan, eskualdeko manifestazioa egin zuten Bergaran. Horrelako ekimenak behar-beharrezkoak dira gaur egun. /I.B.

UARKAPE LEHIAKETA

Uarkape jatetxean bi lagunendako bi afari irabazi gura badituzu, bete ezazu txartel hau eta sar ezazu ARRASATE PRESSko sarreran egongo den kutxan (Otalora Lizentziaduna 31). Zozketa apirilaren 10ean (eguztana) egingo dute Arrasate Irratiko Igo Autobusera saioan.

Izena..... Abizenak.....
Helbidea..... Telefonoa.....

* Afariaren xehetasunak: asteleheneetik eguenera, Uarkape jatetxearen eskaintzaren arabera afaria izango da. Ez da fotokopiarik onartuko.

UARKAPE JATETXEA

ASTELEHENETIK ZAPATURA
EGUNEKO MENUA
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK

ELKARRIZKETA

LIAM D' SILVA/INGELES IRAKASLEA

“Herri baten integratu gura izanez gero, hizkuntza jakitea oso garrantzitsua da”

XABIER URZELAI

Liam irailean etorri zen Arrasatera, eta ingeles irakasle lanetan dihardu ordutik hona. Hizkuntzak atsegin ditu, eta gaztelaniaz mintzatzeaz gain, euskara ikasi guran dabil. Irlandarra da, eta orain dela 27 urte jaio zen, Galwayn. Azken sei urteak Irlandatik kanpo egin ditu: bost urte Frantzian eta azkena hemen, Arrasaten.

Zer dela eta Arrasatera?

Lagun bat daukat Bergaran, eta bisitan etorrita paraje hauek lehendik ere ezagutzen nituen. Ingeles irakasle moduan lan egiteko aukera suertatu zitzaidanean, berehala etorri nintzen.

Badago antzekotasunik Euskal Herriaren eta Irlandaren artean?

Bai, eta askok uste dutena baino handiagoa, gainera. Hasteko, kaleko giroa berdintsua da, eta bi herrialdeek balio antzerakoak dituzte. Familiak eta lagunak bi lekuetan indar handia daukate, eta bi lekuetan ere nor bere herria asko estimatzen da. Horrez gain, argi ikusten da hemen ere basoak eta mendiak asko errespetatzen dituzuela, eta bereziki maite dituzuela.

Zer igartzen duzu faltan gehien?


Hainbat gauza sumatzen ditut faltan, baina leku baten nagoenean, leku horretako bertako gauzak ezagutu eta estimatzen ahalagintzen naiz, positiboa izaten, zelanbait esatearren. Ez dut pentsatzen zer daukadan faltan, bai zik eta hemengoaz gozatzen ahalagintzen naiz, eta badago zertan gozatu, gainera.

Zerk harritu zaitu gehien?

Hemengo hizkuntzak, euskarak. Herritarrek badakite hizkuntza horrek sekulako balioa daukala, eta hizkuntzaren alde lan handia egin dela nabari da. Irlandan, gaelikoak ez dauka horrenbesteko indarrik, eta jendeak jakin badaki ere, gero ez da erabiltzen. Hemen, berriz, hizkuntzaren alde borroka egin dela eta oraindik borroka egiteko asmoa dagoela nabari da. Hori txalogarria iruditzen zait.

Arrasateko Errugbi Taldean ere jokatzeko duzu?

Bai, Arrasatera etorri nintzenean, lagun batzuen bidez errugbian jokatzeko duen batekin elkartu nintzen, eta ea hemen talderik bazegoen galdetu nion. Baietz esan zidan, eta gura banuen entrenatzera joateko. Ordutik hona, herriko taldean dihardut.

Zer moduz konpontzen zara taldekideekin?

XABIER URZELAI

“Euskarak asko harritu nau. Hemengo jendeak badaki euskarak zenbat balio duen”

Oso ondo, oso talde jatorra da eta. Hasieran, ez nituen ondo ulertzen, baina ahaleginak egiten zituzten nirekin berba egiteko, eta hori asko baloratzen dut. Horrez gain, sekulako giroa dago, eta bikain pasatzen dut haiekin.

Errugbian, lehenengo, bigarren edo hirugarren zatiak

“Euskal Herrian eta Irlandan familiak eta lagunak berebiziko garrantzia daukate”

dituzu gurago?

(Barreak). Hirurak atsegin ditut. Irlandan, partiduak jokatu ostean, trago batzuk hartzen genituen. Hemen, ordea, afaltzera ere joaten gara; hortaz, ohitura on hori hemen hobetu egin dute.

Arrasateko inguruak bisitatu dituzu?

“Hemengo gauzak ikasi eta baloratzen ditut. Irlandakoak faltan sumatzen ez dut ezer egiten”

Baietz esango nuke. Herria ondo ezagutzen dut, eta domeketan mendira joatea atsegin dut. Inguruko mendietan izan naiz: Udaltx, Kurtzeberri, Gorbea, Aitzgorri, eta abar.

Behin, Kurtzeberritik Urbiraino joan ginenean, oinez, eta behelinoan zen. Ibilaldi hura izugarri

gustatu zitzaidan. Hemengo basoek “zera magiko bat” daukate.

Bereziki zerbait ikusteko asmorik badaukazu?

Ni kostaldeko herri bateko naiz, Galwaykoa, eta Euskal Herriko kostaldea hobeto ezagutu gurako nuke, itsasoa biziki atsegin dut eta.

Euskara ikasten ere bazabiltza.

Bai, baina gura nukeena baino motelago. Azken baten, euskara herri honetako lehen hizkuntza da, eta hizkuntzak atsegin ditudanez, euskara ikasten ahalagintzen naiz. Horrez gain, nire ustez, herri baten lehenago integratzeko bertako hizkuntza jakitea oso garrantzitsua da.

Hizkuntza gaitza izango da ala?

Bai, nahiko gaitza da. Forma ezberdinak ditu, eta esaldiak egiterakoan ordena ere beste hizkuntzekin desberdina da. Hala ere, gaelikoarekin badu antzekotasunik. Klean nagoenean, lagunei arretaz entzuten diet, eta askotan ezer ulertzen ez badut ere, hizkuntza polita dela ohartzen naiz. Belarrira ondo egiten duen hizkuntza horietakoa da euskara.

Irlandako garagardoa ala hemengo sagardoa?

Biak. Irlandan, lagunekin pub batera joan eta pinta bat edatea egiten dut gusturen. Hemen, ordea, sagardoaren kultura dago, eta erritual antzerako bat da. Birritan izan naiz sagardotegian. Aramaion eta Hernanin, eta bietan ere ezin hobeto pasatu ditut.

Hainbat kontzertu ere eman ei dituzu.

Bai, nik *bodhrán*-a jotzen dut, eta Bergarako lagunak gitarra. *Bodhrán*-a pandero antzerako bat da, baina handiagoa, eta beste modu baten jotzen da. Apirilaren 18an, Bergarako Pol-Pol tabernan joko dugu hainbat lagunekin; hortaz, gonbidatuta zaudete.

Euskal Herriko musika tresna bat?

Txalapartak txunditu nau. Irlandar zaren neurrian, zein ikuspegi duzu Euskal Herriko gatazka politikoaren gainean?

Herri batek bere etorkizuna erabakitzeak aukera izan behar lukeela uste dut, eta hori eskubide bat da. Hemen, ordea, autodeterminazio eskubidea ez da betetzen; hortaz, ezin daiteke jakin jendeak zer gura duen. Hona etorri aurretik, banekien euskaldun askok ez dutela euren burua espainiarizat hartzen, eta ulergarria da hori; hizkuntza ezberdina, kultura eta ohitura ezberdinak, eta abar.

ELKARRIZKETA

PAGO MORALES/ESK SINDIKATUKO KIDEA

“Geroago eta jende gehiago batzen da horrelako mobilizazioetan”

UBANE MADERA

Paco Morales, beste arrasatear batzuen moduan, Bartzelonan izan da, globalizazioaren kontrako ekitaldietan. Bera ESK sindikatuko kidea da; eta beste 250 bat lagunekin joan zen, ESK-k antolatutako bost autobusetan.

Noiz joan zineten?

Zapatu goizean atera ginen Arrasatetik, eta arratsaldeko 15:15 aldera iritsi Bartzelonara. Zapatuko manifestazioan parte hartzera joan ginen, sindikatua- ren ustean ekitaldi hori zelako garrantzitsuena.

Zuen autobusa izan zen Bartzelonara sartzen azkena?

Ez dakigu ziur, baina, ekitaldien antolatzaileek hori esan zuten. Seguru dakiguna da Katalunia eta Frantziaren arteko mugan 25 autobus, mila lagun baino gehiago geratu zirela sartzeko baimen barik.

Zer eskatu gura izan duzu?

Han geunden guztion moduan, Kapitalaren Europaren kontra egin gura nuen. Inposatu gura diguten Europaren kontra: baztertuta dagoen jendea ahaztu eta euren buruengan bakarrik pentsatzen dutenen kontra.

Horrenbeste segurtasun neurri izaten dira horrelakoetan, ematen du leku guztietako erradikalenak joaten direla horrelakoetara...


Horrelako mobilizazioen izen ona kutsatu gura dute, indarkeriarekin identifikatuz. Edozelan ere, indarkeriak aurpegi asko ditu: Estatuak ahulenaren kontra eragiten duen indarkeria, errebindikazio soberanisten kontrako... hori ere indarkeria da eta horrelakoei, zelabait, indarkeriarekin erantzutea ere ez dago txarto. Indarkeria handiagoa eragin dezake Estatuak lagun talde batek baino.

Euskaldunak bereziki zaindu zituzten...

Bereziki, komunikabideek hori saldu gura zuten: “badatoz euskaldunak, batasunoak, kale borrokaren aldekoak”; guk ez genuen hori igarri, ez genuen arazorik izan, baina atxilotuetako asko euskaldunak ziren. Kontrolak ere gogorrak izan ziren.

Uste duzu horrelako errebindikazioek zerbaitetarako balio dutela?

Uste dut agintariei ez diela eragiten, euren bakarrik ikusten dutelako. Baina, geroago eta jende gehiago batzen da horrelako mobilizazioetan. Jendea ez dago eskaini gura diguten Europarekin: kapitalismo bortitza gain, adibidez, ingurumenarekin lotutako arazoak ere ekarri diz-



UBANE MADERA

“Horrelakoek ez diete agintariei eragiten, euren bakarrik ikusten dutelako”

kigu. Euskal Herrian ingurumenari egindako kalte gehienak Europak ezarritako pentsamoldearen ondorio dira. Adibidez, hemen ez dugu Abiadura Handiko Trenik behar; hain herri txikian, ez ditugu behar egiten dabil-tzan azpiegitura guztiak. Baina, hori da Kapitalaren Europak eskatzen duena.

Herritarrei zer esango zenieke?

Horrelakoetan parte hartzera animatuko nituzke; pertsonen sufrimenduari (politiko zein sozial) zerikusia duten edozein mobilizaziotan, alegia. Egun batetik bestera ezin izango da ezer lortu; baina, behintzat, apurtxo bat geldotuko ditugu handinahiko horien asmoak eta ekimenak.

“Mobilizaziorik jendetsuena Bartzelonakoa izan da. Ez dute lortu jendea isilaraztea”

Zerbait gehiago esan gura baduzu...

Irailaren 11tik aurrera, gogor-rago ari dira edozein motako mobilizazioen kontra, baita globalizazioaren kontra ere. Seattleko eta Genovako mobilizazioak baino jendetsuagoa izan da Bartzelonakoa. Ez dute lortu jendea isildu eragitea, guztiz kontrako baina. Gaineratu behar da, era berean, mobilizazioetan parte hartzeaz gain, gerora jendeak ez duela globalizazioaren gaia ahazten, baizik eta eztabaidetan parte hartzen dute, gauzak egin...

Eta salatu egin gura dut, Espainia Europako gobernuan egongo den sei hilabeteotarako antolatutako gailur gehienak.

LABUR

Oporrak direla eta, herriko zerbitzu publikoek ere ordutegi berezia izango dute

Nahiz eta dagoeneko jende asko oporretan egon, bihartik aurrera, eguena, hasiko dira Aste Santuko opor ofizialak. Eta opor horiekin bat egingo dute herriko zerbitzu publikoek. Horrela, gaur arratsaldean hasi eta martitzenera arte itxita egongo dira Arrasateko Udaleko bulegoak. Jakina, udaltzainek lan egingo dute, betiko moduan.

Berriz, Monterron kultur etxeak bat egingo du jai egun horiekin, hortaz, bost egunez itxita egongo da. Bestalde, Musakolako kiroldgia bihartik astelehenera arte goizez bakarrik egongo da zabalik; instalazio orokorrak 08:30etik 13:30era; eta igerilekua 09:00etatik 13:30era. Apirilaren 2tik aurrera, martitzena, bueltatuko dira betiko ordutegira. Uarkape pilotalekuak, berriz, atek zabalik edukiko ditu domeka eta astelehena izan ezik.

Aurrekontuen eta Egitamu Orokorraren gaineko osoko bilkura astelehenean izan zen

Udalbatzarrak osoko bilkura berezia deitu zuen joan den egunerako. Besteak beste, 2002ko aurrekontuak eta Egitamu Orokorra eta hari aurkeztutako alegazioak eztabaidatu behar zituzten zinegotziek. Baina, eguerdian Orion izandako atentatuaren ondorioz, alderdi sozialistak osoko bilkura bertan behera uzteko eskatu zuen. Gainerako alderdiek eskaerarekin bat egitea erabaki zuten, eta, ondorioz, astelehenera arte atzeratu zuten batzarra.

Hortaz, eta bestelako azken ordurorik ezean, herenegun batu zen udalbatzarra. Eta, litekeena da bilera hartan aurtengo aurrekontuak onartzea. Izan ere, Eusko Alkartasunaren, Ezker Batuaren eta Batasunaren aldeko botoekin proposatu dituzte 2002ko aurrekontuak. Horrekin batera, Egitamu Orokorrari aurkeztutako 172 alegazioak eta alderdi politikoek egin dioten proposamenak ere berbagai izan zituzten zinegotziek. Edozelan ere, albiste hau idaztean, bilera egin barik zegoen, ondorioz, ez dago jakiterik zer gertatu den.



Hizkuntza eskubideak defendatzeko

Hizkuntza eskubideen eta euskararen ofizialtasunaren alde egiteko 60 bat lagun batu ziren egubakoitzean Seber Altuben, Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldeak deituta. Ofizialtasuna aldarrikatzeko muralak ere egin zituzten plaza berean. EHE taldearen ustean, hizkuntza eskubideen urraketa sistematikoa gizartean ere hedatuta dago. “Esate baterako, justizia edo osasun administrazioen egoerek lege babes falta argia dagoela adierazten dute”. Hortaz, hizkuntza eskubideak defendatuz, ofizialtasuna eskuratzea da EHE taldearen helburua./UM



UBANE MADERA

Lan guztiak egiteko kalkulatu duten aurrekontua 3.868.552,46 eurokoa da.

HIRIGINTZA/ Asteleheneko bilkuran, zinegotziek kultura etxea berabagai izan zuten.

Liburutegi berria, osoko bilkuraren onespeneren zain

UBANE MADERA

Kultura etxea udalbatzarraren onespeneren menpe dago. Hain justu, joan den eguneko bilkuran eztabaidatu behar zuten, baina, bilkura bertan behera utzi zuten, herenegun arte. Eta, artikulu hau idaztean bilera egin barik zegoenez, ezin dugu emaitzaren berri eman.

Edozelan ere, kultura etxearen proiektua egingo da. Udal liburutegia, umeendako liburutegia, bailarako erakusketa areto bat, hitzaldietarako eta antzekoetarako beste areto bat, eta ikasketak gune bat izatea proposatzen dute proiektuan. Umeendako liburutegia eta erakusketa eta hitzaldi aretoak beheko pisuan izango dira. Horrekin batera, aire zabaleko ekintzak egiteko patioa ere izango da beheko pisuan.

Berriz, lehenengo pisuan, besteak beste, udal liburutegia izango da, hemeroteka eta ikus-entzuneakoak, ikasketa gela, eta baita bilerak egiteko beste gela bat ere.

Horrez gain, igogailua ere izango du kultura etxeak, legeak esaten duenari kasu eginez, zailtasunak dituztenentzako.

Jakina, horrekin guztiarekin batera, eraikina bera ere goitik behera txukuntzeko asmoa dute, gaur egun egoera oso eskasean dago-eta. Are gehiago, 1989. urtean hasi zen Arrasateko Udala eraikin horrekin zerbait egin guran.

Lan guztiak egiteko kalkulatu duten aurrekontua 3.868.552,46 eurokoa (643.672.969,61 pezeta) da. Aurtengo eta datozen bi urteotako aurrekontuekin ordaintzea aurrez ikusi dute. Era berean, asko jota, hogeita lau hilabeteko epea izango dute egin beharreko

guztiak egiteko.

JUAN DE ARAOZEN ONDAREA

Antzinako eraikina da kultura etxe izango dena, oso antzinakoa. Juan de Araoz eta Uriarte Aitorren seme arrasatearrak dirua egin zuen Ameriketako konkistan. Eta, jaioterrira bueltatu zenean, 1566. urtean, dirua eman zuen, ikastetxe kristau bat eraikitzeko. Horrela, Tolosako Fr. Franciscorekin batera, ikastetxea egiteko lanak zuzendu zituen. Eta, lehenengo kaperak 1582. urtean inauguratu zuten.

Hortik gaur egunera arte, hainbat erabilera izan ditu frantziskotarren eraikinak: 1892. urtean, adibidez, ospitalea eta umeendako eskola izan zen; eta, gaur eguneko gaztetxea bakarrik izan arte, ARRASATE PRESS eta Arrasate Telebista ere, adibidez, hantxe izan ziren.

LABUR

Herriko ingurumenaren diagnostikoa aurkeztu zuen Kontseilu Sektorialak

Bigarren bilera egin zuen joan den astean Arrasateko Kontseilu Sektorialak. Bi gai nagusi zituen lantzeko: Egitamu Orokorren gainekoa bata eta ingurumenaren diagnostikoa, bestea. Lehenengo gaia bertan behera utzi behar izan zuten, ez zelako agertu alde di politikoetako ordezkariarik. Hori bai, Egitamu Orokorren gaineko auditoretza ekologikoa ezagutu zuten Kontseilu Sektorialan parte hartzen dute hamazazpi elkarteetako kideek.

Ingurumenaren diagnostikoari buruz, berriz, kontseiluko kideei emaitza aurkeztu zitzaizkien, eta orain, datuak eskuan dituztela, ingurumena hobetzeko zein ekimen egin behar diren zehaztuko dute. Datozen hamaika hilabeteotan egingo dute hori.

Umeendako jolasparkea ipiniko dute Gesalibar auzoko plazan

Udaleko Gobernu batzordeak onespenera eman dio Gesalibar auzoan umeendako parkea ipintzeko proposamenari. Hain zuzen ere, Lurkoi enpresari adjudikatuko dizkio parkearen lanak, 17.997,81 euroren truke (ia hiru milioi pezeta).

Umeendako parkea auzoko plazan ipiniko dute. Eta herrian egiten ari diren azken parkeen antzerakoa izango da: egurrezko jolasgune handi bat izango du, zubi batekin, bi dorre, txirrista, sokak eta, oro har, umeak gora eta behera ibiltzeko bestelako tresna batzuk. Horrez gain, jarleku bakarrekoko kulunka izango du, etxe txikitxo bat eta bestelako jolasleku batzuk. Bestalde, parke horrek zolu berezi bat izango du, umeen segurtasuna bermatzeko.



Blanca Roncal, Patxi Lópezen Exekutiban

PSE-EE alderdiak asteburuan egindako kongresuaren barruan, Patxi Lopezek, PSE-EEko idazkari orokorrak, alderdia gidatuko duen Exekutiba aurkeztu zuen Kurasaalean. Hamar emakumezko eta bederatzi gizonezko osatzen dute taldea. Horien artean, Blanca Roncal arrasatear legebiltzarkidea ere bada; alderdi sozialistaren Administrazioaz arduratuko da bera.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
- bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50



Berezitasunak
Kazuelatxoak

Otarteteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa, 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40



YABA DABA DOO, 'POTATO'!

Potato-ri ezkondu aurretiko jaia egin zioten koadrilakoek martxoaren 9an. Goizeko bederatzietan Pedro Harriketa-ren disfrazera eman zioten etxera, eta horrela jantzita irten zen kalera. Arrasaten trago pare bat hartu, eta

Valdegoviara joan ziren, *paintball*-ean jokatzera. Gero, indarrak berreskuratzeko, Angoston bazkaldu zuten, eta parranda egitera Gasteizera joan ziren. *Wilma*-k oraindik ez daki zer-nolako fitxaketa egin duen. Konturatuko da.



GAZTETXEAK PANELA JARRI DU

Arrasateko Gaztetxeak hainbat ekitaldi antolatu ditu, eta horien berri emateko, panel bat jarri dute kanpoaldean. Horrela, aurrerantzean egingo dituzten ekitaldien berri jakin gura duenak gaztetxeko atera hurbiltzea besterik ez du izango. Ez da batere irtenbide txarra. Azken baten, informazio faltagatik ez dadila izan!

MUSAKOLAKO ETXEA, ZURI

Musakolako etxeak margotzen harrapatu dugu langile hori. Garabiak sekulako altuerara jaso zuen argazkiko protagonista, baina hark ez zuen dardararik egin. Badirudi hainbat metrora lan egitea zirrargarria dela. Ohituta dagoenarendako izango da. Dena dela, kontu handiz ibil dadila. Badaezpada ere.



MUGARRIZ MUGARRI

AED eta Arrasate Kirol Proiektuak antolatuta, domekan hainbat arrasatear animatu ziren herria Mugarriz Mugari zeharkatzera. Goizeko bederatzietan elkartu ziren, eta Garagartzarako bidea hartu zuten. Hantxe, kobazuloak, baserriak eta inguruak ikusteko aprobeztatu zuten. Etxerako buelta, ordea, eguerdi partean egin zuten.

Elgoibarrek astindu ederra jaso zuen zapatuan Atxabalpen

XABIER URZELAI

Mondra taldeak 6-1 irabazi zion Elgoibarri zapatuan Atxabalpen. Arrasatearrak azken bi partiduetan izandako emaitza txarrak ahazteko asmoz irten ziren futbol zelaira, bai eta lortu ere. Bigarren zatian iritsi zen mondragoetarren gol jaialdia.

Lehenengo zatia ez zen txarra izan, baina Atxabalpera hurre-ratu zirenek gol bakarra ikusi zuten. Ekainek egin zuen, hain zuzen ere. Bigarren zatian, ordea, gauzak dezente aldatu ziren. Arrasatearrak lehen zatian baino gol aukera gehiago izan zituzten; gol aukera horiek aprobetxatu egin zituzten, eta hala, golak barra-barra iritsi ziren.

Keixik, Tirik, Soluek, Muruak eta Ekainek sinatu zituzten bigarren zatiko golak, baina Elgoibarko atezainaren laguntza izan zutela ere esan beharra dago, kanpotarren atea zaintzeko arduraz zeukanak ez zuen-eta arratsalde oso ona izan. Zapatuko garaipenarekin, mondragoetarrek seigarren postuan jarrai-



ARTXIBOA

Egubakoitzean Realeko gazte mailako txapelketako partidua izango da Atxabalpen.

tzen dute. Liderra Debako Amakak Bat taldea da, eta hamar puntura daude.

ASTE SANTUKO REALEKO TXAPELKETA
Urtero moduan, aurten ere Realeko Gazte Mailako Futbol Txapelketa antolatu du. Hamazortzigarren aldia izango da aurten txapelketak. Txapelketa horre-

tan, estatuko taldeak jokatzearaino, kanpoko punta-puntako klubetako gazte mailako taldeak ere izango dira. Finala Anoetan jokatuko dute, baina partiduak Gipuzkoako hainbat herritan jokatuko dituzte. Atxabalpen Reala eta Osasuna aurrez aurre ikusteko aukera izango da egubakoitzean, arratsaldeko lauretatik aurrera.

Kenci Arrasatek oporrak hartuko ditu, aurreko astean irabazita

X.U.

Arrasateko saskibaloitako taldeak uste baino errazago irabazi zion Beasaingo BKL-CAF taldeari. Arrasatearrak hasierahasieratik hartu zuten aurre, eta kanpotarrek ez zuten presio handirik egin. Bukaerara arte, markagailua etxeko taldearen alde egon zen.

Arrasatearrak gutxitan jokatzen dute horren eroso, eta normalean partiduari buelta emateko lanean ibili behar izaten dira. Joan den zapatuan, ordea, etxekoek izan zuten partiduen nondik norakoa bideratzeko ardura, eta Iker Zubiriaren mutilek ez zuten lan horretan kalerik egin.

PARTIDU OSOAN AURRETIK

Uste izatekoa zen zeingehiagoka parekatua izango zela, baina aurreikuspenek kale egin zuten, Beasaingo taldeak ez zuen-eta maila onik erakutsi. Arrasateko taldeak lehenengo minututik



ARTXIBOA

Kenci Arrasatek Calahorraren kontra jokatuko du Aste Santuaren ondoren.

aurre hartu zuen, eta aurkariari ez zion aukera bat bera ere eman. Lehenengo zatian mondragoetarrek izan ziren jaun eta jabe, eta bigarren laurdenean 48-31 ziren aurretik etxekoak. Hirugarren eta laugarren laurdenetan gauzak

ez ziren askorik aldatu, eta arrasatearrak alde handitzeko egin zuten lan. Partidu amaieran markagailuak 100-67 erakusten zuen. Arrasatearrak hurrengo partidua apirilaren 13an jokatuko dute, Calahorran.

TXIRRINDULARITZA

Fagor taldeko Raul Blázquez zazpigarrena izan zen Uzarragako 28. Igoeran

Joan den asteburuan, Fagor taldeko txirrindulariak Uzarragako 28. Igoeran izan ziren. Txirrindulariek Bergara, Antzuola, Oriñe eta Sorluzetik itzulia egin eta gero Uzarragako portua izan zuten igotzeko. Lasterketak 70 kilometro izan zituen, eta parte hartu zuten 116 ziklistetatik, 65 bakarrik iritsi ziren helmugara. Lasterketako irabazlea Muebles Ordizia taldeko Asier Muxika izan zen. Fagor taldeko sei txirrindulari izan ziren, eta onena Raul Blázquez izan zen; zazpigarren iritsi zen helmugara Raul Blázquez.

JMA taldeko kadeteak, bestalde, Lazkaon jokatu zen Esparruproban izan ziren. Lasterketa horretan ziklista asko lurrera erori ziren. JMA taldeko ziklistek lasterketa amaitzea zuten helburu, eta sailkapeneko erdiko postuetan heldu ziren helmugara.

EHIZA ETA ARRANTZA

Leintz Ehiza eta Arrantza Elkartek batzar orokorra egingo du gaur Monterronen

Gaur, eguaztena, Leintz Ehiza eta Arrantza Elkartek batzar orokorra egingo du Monterron jauregian. Batzarra arratsaldeko sei eta erdietan hasiko da, eta bertan urtean egindako ekintzak errepasatu, eta datozen hilabeteotarako prestatuta dituzten ekintzen berri ere emango dute. Besteak beste, apirilaren 20an, Santa Cruz del Ferron izango den Ehiza Txapelketaren berri emango dute, hori da-eta elkartek antolatuko duen hurrengo txapelketa.

FOTOKIROLA



Errugbian amaitu dute Liga txapelketa

Arrasateko errugbilariek 10-31 irabazita esan zioten agur zapatuan Liga txapelketari. Mondragoetarrek Arratikoren aurka neurtu zituzten indarrak, kanpoan, eta partidua uste baino errazago irabazi zuten. Talde osoa ondo ibili zen, baina beste behin, azpimarratzekoa izan zen Igor Erañak egin zuen lana. Mondragoeko Errugbi Taldeak aurreneko postuetan amaitu du Liga txapelketa, eta puntu bi gehiago izango balitu, Arrasateko taldea Liga txapelduna izango zatekeen. /X.U.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



JULEN IRIONDO

Jon Aperribai bizikleta gainean onena izan zen, baina korrika egin eta gero hirugarren sailkatu zen.

OÑATIKO DUATLOIA

Jon Aperribai izan zen arrasatear azkarrena; hirugarren sailkatu zen

Arrasatearra bosgarren iritsi zen helmugara, baina epaileek bi atleta zigortu egin zituzten

XABIER URZELAI

Joan den zapatuan jokaturako Oñatiko Duatloian 223 atletak eman zuten izena. Bi arrasatear lehenengo hamarren artean sailkatu ziren: Jon Aperribai hirugarrena izan zen eta Zuhaitz Ezpeleta seigarrena. Txapelduna Jon Arozena izan zen, eta emakumezkoetan Kebi Sport taldeko Aintzane Argoiz izan zen azkarrena.

Eguraldi ona lagun, aurtengo Oñatiko Duatloia oso arrakastatsua izan da. Guztira, 223 atletak hartu dute parte duatloian, eta hemeretzi talde. Ibarreko triatloi talde berria, Antxintxika Debagoiena Taldea, lehena izan zen taldekako sailkapenean, eta taldeko zazpi atleta lehenengo hogeita hamarren artean iritsi ziren helmugara.

SEI ARRASATEAR OÑATIN

Antxintxika Debagoiena taldeko hamasei atleta izan ziren Oñatiko Duatloian lehian, eta horietatik, sei arrasatearrak ziren. Jon Aperribai izan zen lehen arrasatearra (1:47:03). Minutu bat geroago, berriz, Zuhaitz Ezpeleta iritsi zen helmugara.

Jon Aperribai azkarrena izan zen ziklismo proban, eta lehenengo postuan jarri zen. Azkeneko lau kilometroak, baina, lasterka egin zituzten, eta hainbat atletak aurre hartu zioten. Bosgarren iritsi zen helmugara Jon. Hala ere, epaileek bi atletari minutu bateko zigorra ezarri zien,

eta Jonek sailkapen nagusian hirugarren postua eskuratu zuen; "Bosgarren helmugaratu banaiz ere, azkenean hirugarrena izan naiz, nahiz eta ez dudan batere gustuko goiko postuak horrela eskuratzeara".

Zuhaitz Ezpeleta lehena izan zen Basauriko Duatloian, baina argi zeukan Oñatin gauzak bestelakoak izango zirela. Zuhaitzek Jonek baino minutu bat eta bi segundo gehiago behar izan zituen proba betetzeko, baina gustura zen egindako lanarekin: "Banekien Basaurin egindakoa

errepikatzea oso gaitza izango zela. Gainera, barea egin zait, eta hainbat kilometrotan gura baino gehiago sufritu dut. Edozelan ere, seigarren izan naiz, eta gustura nago".

Hirugarren arrasatearra Zigor Jiménez izan zen (2:06:46). Geroago iritsi ziren Daniel Molinero eta Jon Egiluz mondragotarrak. Daniel Molinero 2:07:37 egin zuen, eta Jon Egiluzek, berriz, bi ordu eta erdi pasatxo. Azken arrasatearrak, Lorenzo Alonsok, ezin izan zuen proba bukatu, erretiratu egin zen-eta.

Taldeka, hobeto

Zapatuan, lehenengo aldiz ikusi ahal izan genuen Antxintxika Debagoiena Taldea gure errepideetan lehian. Oñatiko Duatloia erakuslehoi paregabea zen, eta ibarreko atletek ez zuten kalerik egin. Guztira, hamabost taldekide iritsi ziren helmugara, eta horietatik, zazpi lehenengo hogeita hamarren artean iritsi ziren. Ez da zenbaki makala, 223 atleta izan zirela kontuan hartzen badugu.

Jon Aperribaik, Zuhaitz Ezpeletak eta Aitor Larreak egin zuten lanari esker, Antxintxika Debagoiena taldeak taldekako lehen postua eskuratu zuen. Aurten, hiru proba egin dira dagoeneko: Martuteneko, Basauriko eta Oñatiko duatloiak, eta hiruretan ere, Antxintxika Debagoiena Taldea nagusitu da taldeka. Atleten esanetan, talde sendoa eratuta gauzak errazago egiten dira, eta ibarrean talde hori eratzea aurrerapauso handia izan da.

Gaur egun, ibarrean triatloiko talde bi daude: Antxintxika Debagoiena eta Oñatiko Triatloi Taldea. Bergarako eta Arrasateko taldeek bat egin zuten, baina oñatiarrek euren kabuz jarraitzeko erabakia hartu zuten. Lastima, txikiak elkartuta handi egiten dira-eta.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Iriztu Taberna - Bin Laden	4-4
Koka Junior Basati - AC Surcos	1-4
Bikain Akademia - Etxerat	5-7
Goma2 - Usotz Potroak	6-2



B MULTZOA

Azkena You Know - Rayo Aldeano	1-1
Aurrera Bolie - Betraye	3-7
Irati STS - Chapime Dribling	3-7
AT Celaya - I.K.P.	7-8

SAILKAPENA

A MULTZOA

1. Etxerat	4	2
2. AC Surcos	4	2
3. Bin Laden	3	2
4. Goma2	2	2
5. K.J Basati	2	2
6. Iriztu taberna	1	2
7. Bikain Akademia	0	2
8. Usotz Potroak	0	2

P J

B MULTZOA

1. Chapime Dribling	4	2
2. Betraye	4	2
3. Azkena You Know	3	2
4. I.K.P.	2	2
5. Irati STS	2	2
6. Rayo Aldeano	1	2
7. AT Celaya	0	2
8. Aurrera Bolie	0	2

P J

ASTE SANTUAN, DESKANTSUA

APRILAREN 13RA ARTE EZ DA ZALDIBARKO TXAPELKETARIK IZANGO

Lan kontuak direla eta, gehienak Aste Santuko oporraldiaren zain daude. Zaldibarko txapelketan ere atsedean hartuko dute, nahiz eta futbolzaleek ez daukaten deskantsu beharrik. Kanpora joaten direnek baloia eraman beharko dute, sasolari eutsi gura badiote, eta herria zaintzen geratuko zarenenok hortxe izango duzue pilotalekua. Dena dela, futbolearen edo futbolearen egin barik, ondo pasatu Aste Santuko oporrak.

GILTZA-ZORROA AURKITU DUTE ZALDIBARREN

Asteburuan, Zaldibarren partidua jokatu eta gero, norbaitek zailtasunak izango zituen etxera sartzeko. Antolatzaileek bost giltza zituen giltza-zorroa aurkitu zuen Zaldibarko pilotalekuan; hortaz, galdu dituenak badaki non dauden giltzok.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

SASKIBALOAIA

Atsedena, apirilaren 13ra arte.

FUTBOLA (REALAREN TXAPELKETA)

Reala - Osasuna

Gazte maila: Egubakoitzean. 16:00. Atxabalpe.

ESKUBALOAIA

Atsedena, Kopa txapelketa hasi arte.

ERRUGBIA

Amaitu dute denboraldia.

PILOTA

Atsedena, Herri Arteko Txapelketa hasi arte.

EMAITZAK

FUTBOLA

Erregionala: Mondra - Elgoibar	6-0
Ohor. gazte maila: Mondra - ST Lizeoa.	1-0
2. mailako gazteak: Mariño B - Arrasate. ...	2-2
Ohor kad: Leñgokoak - Arrasate.	2-0
Ohor infant: Reala - Arrasate.	5-0

Neskak: Mondra - Dunboa. 1-2

ERRUGBIA

Arratiko Txekorrak - Arrasate. 10-31

SASKIBALOAIA


Kenci Arrasate - BKL CAF. 100-67

OÑATIKO DUATLOIA (ARRASATEARRAK)

3. Aperribai Uribeberria, Jon.	1:47:03
6. Ezpeleta Iturbe, Zuhaitz.	1:48:05
115. Jiménez Benito, Zigor.	2:06:46
121. Molinero Castro, Daniel.	2:07:50
121. Egiluz Zubia, Jon.	2:35:31

TALDEKAKO SAILKAPENA

1. Antxintxika Debagoiena Taldea.
2. A.SS Liberto Triatlon.
3. K.J. LUCK.



IKER BARANDIARAN

Txatxiartistak taldeko antzezleriak fin ibiltzen dira Gazteluondoko aretoan eta Txatxilipurdin.

Txatxiartistek 'Eguzkiaren Bila' arrakastatsua antzezten dihardute

IKER BARANDIARAN

Txatxilipurdiko Txatxiartistak buru-belarri dabil-tza joan den aspaldian *Eguzkiaren bila* antzezlana aurkezten. Aurrez, Gazteluondoko aretoan antzeztu zuten, eta joan den asteburuan, Bilboko Kafe Antzokian izan ziren.

Txatxiartisten antzerki sailak hainbat urte ditu dagoeneko. Lehendik dator antzerki talde hori. Izan ere, duela hiruzpalau urte, eskolaz kanpoko ekintzen barruan bederatzi urte inguruko taldetxo bat sortu zen, eta gero, antzezleek ikastola utzi eta DBHra jauzi egiteko unean, Txatxilipurdi elkarteari haren baitan sartzea proposatu zioten. Txatxilipurdik eskaera onartu egin zuen eta Txatxiartista bilakatu ziren.

Gazte horiek eskolaz kanpoko ekintzetan zebiltzala, bi antzezlana prestatu eta antzeztu zituzten Arrasaten, biak Gazteluondoko aretoan: bata, *Poti* eta bestea, *Urkuluetako bainuetxeak*. Bi antzezlantokan hemeretzi gaztetxok hartu zuten parte, eta Mikel Irastortzak eta Itziar Rosadok egin zituzten zuzendari lanak. "Irailean, ikasturtearekin batera hasi eta maiatza aldera, azterketa balitz bezala, antzezlana eginez bukatzen genuen ikasturtea. Horrela funtzionatzen genuen hasieran" Era berean, antzeztu-

"Eguzkiaren Bila antzezlana dantza, musika, antzerkia eta koreografia dauzka"

Lan berria Gazteluondoko aretoan eta Bilboko Kafe Antzokian antzeztu dute

tako bi lanak Ekekei antzerki taldean ibilitako Joxe Ramon Urrutiak, *Txotx*-ek, idatzi zituen. "Daukagun arazo handiena da aktore paper asko dituen antzezlana egin behar izatea. Izan ere, hemeretzi lagun gabiltza, eta horregatik ez dugu jende berririk sartu gura izan".

Antzerki taldean hasi zirenetik hona, ia jende berberak jarraitzen du taldean, eta hori dela eta, aurreko antzezlana berriro taula gainera eramatea posible izango litzateke. Hala ere, beste lan bat prestatu dute joan den aspaldian, *Eguzkiaren Bila* deritzona.

"Istoria hori liburu baten aurkitu genuen, eta Nafarroako ikastola bateko taldeak antzeztu zuen bere garaian", kontatu zigun Mikel Irastortzak.

DANTZA, MUSIKA, KOREOGRAFIA...

Eguzkiaren Bila antzezlana, aurreko lanek ez bezala, dantza, musika, antzerkia eta koreografia batzen ditu. "Horrelako elementuak sartzeak bizitasun handiago eman diola uste dugu. Gainera, talde handiarendako oso aproposa da istorioa", azaldu zigun Mikelek berak.

Izan ere, *Eguzkiaren Bila* antzezlanean honako istorioa kontatzen da: "Bat-batean eguzkia mundu osotik desagertu egin zen. Munduko alkate guztiak batu, eta konponbidea aurkitzea erabaki zuten. Neska bat animatu, eta eguzkiaren bila joan zen. Bidean, *Beroepeletar* familia osoa ezagutu zuen".

Horixe da, hain zuzen ere, aurreko baten Gazteluondoko aretoan eta aurreko astean Bilboko Kafe Antzokian antzeztu zuten lanaren istorio xumea. Bai Gazteluondon eta bai Bilboko Kafe Antzokian ere arrakasta izan zuten Arrasateko gaztetxok, eta irrikan daude beste nonbaiten antzezlana taularatzeko. Horretarako, egubakoitzero, ordu eta erdiz entseatzen dute, eta antzezlana denboran gertu baldin badute, sarriago. Ea noraino helitzen diren artista gazte horiek!

KULTURAPILULAK

Egubakoitzean, Doke Txapelketa jokatu dute SUDCek eta Udaleko ordezkariak

Ohiturari jarraituz, datorren egubakoitzean, SUDCek Doke Txapelketa antolatu du Kondekua parkean. Goizeko hamarretan hasiko dute herriko elkarte gastronomikoen arteko txapelketa, eta txapelketa hori irabazten duen bikoteak Udaleko ordezkariaren kategoria jokatu du. Galtzen duen bikoteak Kondekuan bertan egin dagoen sardinak ordaindu beharko ditu.

Udal Liburutegiko langileek hainbat kultura ekitaldi antolatu dituzte apirilera

Arrasateko Udal Liburutegiak hainbat ekitaldi antolatu ditu apirilera, apirilaren 23a Liburuaren Eguna dela argudio hartuta. Hilabete osoan, *Ipuinez Ipuin*. *Haur Literaturaren aretoa* deritzon erakusketa egongo da ikusgai. Horrez gain, hainbat ipuin kontalarik ere jardungo dute, bai eta txotxongiloak ere.



ELENA FIEL

Virginia Imazek umeendako ipuinak kontatuko ditu Arrasaten.

Virginia Imazek ipuinak kontatuko ditu apirilaren 9an

IKER BARANDIARAN

Virginia Imazek bost eta zortzi urte bitarteko umei ipuinak kontatuko dizkie apirilaren 9an (martitzena). 17:00etan, Santa Marinako liburutegian jardungo du, eta 18:30ean, berriz, Monterongo liburutegian.

Virginia Imazek oso ibilbide luzea egin du pailazo, *klown* eta ipuin kontalari moduan. Donostian jaió baina gaztetan Bergarara joan zen emakume horrek 80ko hamarkadan hainbat antzerki taldetan parte hartu zuen. Gerora, 1988an, beste artista batzuekin, Oihulari Klown elkarte eratu zuen, *klown*-aren inguruko ikerketak egiteko asmoz.

Horrela, 90eko hamarkadan, Oihulari Klown taldeko partaideak era askotako ikuskizunak egiten hasi ziren. Gerora, 1997an, Cirque Du Soleil-rako *casting* bat egin zuen Virginiak, eta Virginia bera eta haren senarra kontratatu zituzten. Horren ondorioz, ia urtebetez, Kanadan egon ziren prestakuntza ikastaro baten, eta gero, bi urte inguru AEBeko Orlandon pasatu zituzten, akrobazia ikuskizunen inguruko antzezlana

umoretsuak egiten, "pailazo lana egiten, baina sudur barik," esan digu Virginiak.

Ameriketako Estatu Batuetatik bueltan, Oihulari Klown taldea berriro antolatu eta *klown* ikuskizunak egiten eta ipuinak kontatzen hasi dira berriro.

SENDATZEN GAITUZTEN IPUINAK

Virginiak sudurra (barrea) eta poesia (ipuinak) aldarrikatzen ditu. Horregatik, *klown*-a jorratzen gogor jarraitu arren, ipuinak kontatzen ere ibiltzen da. Azkenaldian, gainera, Oreretako Txefo Rodríguez musikariarekin jotzen da ipuinak kontatzera. Virginiaren esanetan, "musikak giroak sortzen ditu, eta gainera, une bereziak ere nabarmentzen ditu". Are gehiago, ipuinak girotzeko asmoz, kandelak ere pizten dituzte.

Virginiaren ustez, "guk kontatzen ditugun ipuinak aurretik hunkitu egin gaituzten ipuinak dira. Bizi izaten laguntzen digute ipuinok, eta sendatu egiten gaituzte. Gure barneko arazo bat konpontzeko gai dira ipuin horiek. Beste batzuei kontatzeko irrikan egoten gara, eta horiek entzungo dituzte".

E, TXO!

TXATXILI BEGIRALE BILA

Txatxilipurdi 2002ko udalekuak prestatzen hasi da. Udalekuetan begirale izateko interesa duzuenok bidali curriculum Pablo Urangako egoitzara (6. zenb.); edo deitu 943 771739 telefono zenbakira, martxoaren 30a baino lehen. Derrigorrezkoa da 18 urtetik gora edukitzea, euskaraz berba egiteko gai izatea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen eragileen heziketa saioetan parte hartzea.

URTEURRENA GAZTETXEAN

Apirilaren 6an, zapatuan, Arrasateko gaztetxearen hamaikagarren urteurrena ospatzeko bazkaria egingo dute. Txartelak berehala jarriko dituzte salgai tabernetan. Horretaz gain, apirilean zehar ekitaldi ugari antolatuko dituzte.

TXATXILIKOAK KANPOAN

Txatxilipurdi elkarteko makina bat lagun Zumarragara joango dira apirilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean, Zumarragan bertan umeendako tailerrak antolatzera. Bestalde, joan den zapatuan, Larunblaieko ekitaldien barruan, goxoak zelan egin ikasi zuten herriko hainbat ume eta gaztetxok.

MUSIKA GAZTETXEAN

Apirilaren 13an, metal kontzertua egongo da Gaztetxean, eta hiru taldek jardungo dute: Cuerno de Chivo nafarrak, X-At bergararrak eta Neu gipuzkoarrak.

DANTZA GAZTETXEAN

Gaztetxean euskal dantzen gaineko ikastaroa antolatu dute. Domekero, 18:00etatik aurrera, egiten dute eta edozeinek parte har dezake. Ikastaroa doanekoa da, baina ezinbestekoa da ikasleek ikastaroari jarraipena ematea.

**CLUB
IYOLA**

**Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29**

GUREGAIK/ IKASBIDAIK

Eskolako ikasketa-bidaiak, gazteendako denbora-pasa polita

IKER BARANDIARAN

Gaztetxo askorendako eskolako ikasketa-bidaia izaten da guraso barik etxetik kanpo irteten diren lehenengo aldia. Ilusio handia edukitzen dute gaztetxoek irakasleekin batera kanpora joateko.

Joan den asteburuan, San Viator Ikastolako hainbat ikasle Europako zenbait herrialdetara joan dira ikasketa-bidaian. Frantzia, Holanda, Txekia, Alemania eta beste lurralde batzuk bisitatu dituzte. Ikasleak Europan zehar ibiltzeko irrikitan zeuden, eta ez da harrizkoa. Geu ere gustura joango ginatke, bai horixe.

Ikastetxeetako arduradunek eta baita ikasleek ere sarri Aste

*Ikasketa-bidaietan,
leku berriak
bisitatu, lagunak
egin... Azken baten,
ondo pasatzen dute*

Santua edo aurreko egunak aukeratzeko dituzte bidaiarako.

GURASO BARIK, BAINA IRAKASLEEKIN

Eskolako ikasketa-bidaia, guraso barik, lagunekin, kanpora jotzen duten lehen aldia izan ohi da gaztetxo askorendako. Aukera ona izaten da leku berriak eza-



ARTXIBOA

Gaztetxoak irrikan daude kanpora joan eta munduan zehar ibiltzeko.

gutzeko, lagunak egiteko, parrandaxoren baterako... esperientzia berriak edukitzeko, azken finean. Eta gurasoen, eta baita ikasleen lasaitasunerako ere, irakasleak eurekin joaten dira.

LOTSABARIK/ Iker San Migel

“Erretiratuena da bizimodurik onena”

IKER BARANDIARAN

Ikerrek duen onena gauzak patxadaz hartzeko izugarriko erraztasuna da. Gurean ere lasai egon zen, lotsa barik. Etorkizunean, besteak beste, gaztetxearekin gertatuko denak arduratzen du.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Suhiltzaile izan gura nuen. Egia esatearren, suak eta horrelakoek beti erakarri naute. Txikitan suarekin gaiztakeriak egin nituen, denon moduan. Suhiltzaile izatearena baztertu egin dut. Baina oraindik ez dakit zer izan gura dudana.

• Zelan ikusten duzu zeure burua 20 urte barru?

Lanean, ile gutxirekin, ezkondua eta seme-alabekin. Arrasaten gustura biziko nintzateke.

• Zein da, zure ustez, adin ideala?

Parrandetarako orain daukadana, askatasunagatik. Bestela, bizitzeko, erretiratuena adina; horiek bai bizi direla ondo.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei eta familiari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Makina bat kontuk: euskararen egoerak, Euskal Herriko gatazkak, munduko arazoen, Arrasateko Gaztetxearekin ger-

tatuko denak...

• Zerk ematen dizu lotsa?

Gauza bat txarto egitean, denak zuri begira gelditzeak.

• Zure bertute bat? Eta alde txarren bat?


Oso lasaia naiz; hori bai, haserretzen naizenean, oso burugorria naiz.

• Zure gorputzeko atalik gutukoena?

Eskuak. Ez dakit zergatik baina beti egoten naiz eurei begira, zerbait edukiko dute.

• Pertsona bat ezagutzeko, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Hasieran, fisikoari; baina, gero, ea bera zelakoa den jakiten ahalegintzen naiz.



ADINA: 18 urte • IKASKETAK: Informatikako heziketa zikloa • ZALETASUNAK: Eskubaloian jokatzeko LIBURU BAT: Liburuak baino, prentsa irakurtzen dut • FILM BAT: 'El día de la bestia' • MUSIKA TALDEA: Stratovarius, esaterako • KIROL TALDEA: Sakanako Sokatira taldea

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

LANDALUZE
HARATEGIA-URDAITEGIA
ESPEZIALITATEA: ETXERO TRIPAKIAK
 ITURBIOTZ KALEA 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

BEHEKODENDATIK

Ander Josu Landaluze

LANDALUZE HARATEGIKUE

XABIER URZELAI

Okela mozten eta motorrien ibiltten, Ander Landaluze baiño abillagiek gutxi egongo die hamen inguru. Lehenengue, urte askotako ofiziuakin ikasi dau, eta bigarrena, motor gaiñien pasau dittuen orduekin. Harategiko horma baten trofeo mordue dauko; azken urtekuek die. Leku faltie eukiko dau...

Amets bat?

Lanetik apur bat liberetie.

Eta amets txar bat?

Ingurukuei zerbait txarra pase-tie-edo.

Egin dozun azken biajie?

Argentinara, ezkondu nitzenien. Ordutik hona, gutxi, motorrien gora eta behera.

Txartel horixe, zeñiei?

Basurie orduz kanpo bajetan dauenei.

Eta gorrixer?

Aznarrei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Telebisiñuen botaten dittuenak ikusten dittut / Aldizkarixek irakurten dittut / Danetik entzuten dot.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai. Droga bigunek, behintzet, bai. Gogorrekin ez dauket oso argi.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Nik neuk gurago dot txikiteue; hala eta be, hiruzpalau txikitokin nahikue.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparakalekuen arazue.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Pakie lortzen ahaleginduko nitzake. Berba egin biher da.


Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Gonzalo Sáez de Samaniego.

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Lehendakarixe, esaterako.

Tranpan ibilttekotan nor-baittekin, zeñiekin?



X.U.

*"Behi eruekin
arduratute ibilli
gitzen. Oin,
errekuperau egin
gara"*

Neure edadekoren bat esan biherko dot. Sharon Stone.

Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

Sorginen Laratza / Radio Euskadi eta Arrasate Irratia entzuten dittut.

Bizio bat?

Tabakue erreten dot. Askorik ez, baiñe...

Zertan gastauko zeunke dirue?

Etxe bat erosiko neuke, Deban.

Ze saltzen dozue gehixen?

Euskal okelie.

'Behi eruen' kontuakin, tran-kil egitten zeuen lo?

Egixe esan, ez. Behi eruen krisialdixe nahikue sufridu geuen,

*"Geure tripakixek ez
daukie sekreto
haundirik. Jenero
freskue eta pipar
txorizerue"*

bainie errekuperau gare.

Tripakixek benetan onak egitten ei dittuzue.

Bai, fama hori daukogu. Egixe esan, ez daukogu sekretu haundirik, geure amak egitten zittuen moduen egitten dittugu.

Ze esango zeuskio okelarik jaten ez dauen bati?

Gauza txarragiek be konsumiduko dittuela, seguru. Errespetau egin biher, besterik ez.

Motorrien ibiltteko, txuleta asko jatie komeni da?

Ez dauko zerikusirik. Motorrien ibiltteko, gogue eta balientie izetie biher die.

Motor marka bat? Honda Gold Wing.

NIREBIDAIAHURA/ Belen Aranbarri

Salvador de Bahia (Brasil) / 2001eko abuztuan

Belenek eta Igorrek Salvador de Bahian igarozuten hilabete ia osoa, baina Brasilgo barrualdea apur bat ikusteko ere aprobetxatu zuten. Arrasateko bikoteak autobus bat hartu, eta zortzi bat orduko bidaia ekin zuen: "Alde ederra dago Brasilgo eta hemengo errepideen artean. Brasilen zuloak bakarrik zeuden, eta autobusak hango errepideei aurre egiteko prestatuta zeuden. Bidaian, Chapada Diamantina mendilerroantantz abiatu ziren, Lençóis aldera. Bidean, birusen bategatik koarentenan zegoen herri bat ere gurutzatu zuten, eta Belenen esanetan, ez da esperientzia oso gomendagarria.

Bikoteak familiartekoak ditu Brasilen, eta askoz ere gehiago gozatu zuen egonaldia; izan ere, bazekiten zer bisitatu eta zer ez: "Barrualdera egin genuen bidaian, esplotatu gabeko eskualdeak ikusi genituen, eta bidaia agentzia baten bidez joan izan bagina, sekula ere ez genuke horrelakorik ikusi izango". Horrez gain, parajeek harrituta utzi zuten Belen: "Brasil oso handia da, baina beti oihan handi bat balitz bezala irudikatzen dugu. Gu izan ginen eskualdeak Colorado Kanoia ematen zuen, basamortua balitz bezala".

Bidaia hartan, sekulako ur-jauziak ikusteaz gain, kobazulo askotan ere izan ziren: "Harrigarria zen uraren gardentasuna: 40 metro sakon zegoen harria ere ikus zitekeen, neurri handi baten, argi asko sartzen zelako kobara. Horrez gain, uraren kolorea ere deigarria zen".

Hainbat ordu oinez egin eta gero, erreka bat ikusi bezain pronto ez dago bainua hartzea modukorik, gorputza freskatzeko. "Asmo horrekin sartzen ginen uretara, baina zera baino beroago zegoen ura". Izan ere, nahiz eta orduan negua izan, Brasilen beroa eta hezetasuna dira protagonistak.




*"Brasilen
familia
izanda,
bagenekien
zer ikusi"*

*"Ez nuen
espero
horrelako
parajerik
Brasilen"*

XABIER URZELAI



Belen eta Igor, bisitatu zuten ur-jauzi handienean.



Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



MEMESA

Industria
hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa

Tel: 943 79 76 58

ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde aitzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



ESKORIATZA
Oihher Ganboa
Martxoaren 24an, urtebete. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Ane Arrillaga
Apirilaren 7an, 2 urte. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Eneko Canelo
Martxoaren 27an, 5 urte. Zorionak! Amaren, aitaren eta arrebaren partetik.



ARRASATE
Ane Agirre
Martxoaren 27an, 13 urte. Zorionak! Oihane Altuna eta Andrea Salaberri.



ARRASATE
Xabi Vallina
Martxoaren 30ean, 13 urte. Zorionak, amamaren partetik.



ARRASATE
Roberto Frutos
Martxoaren 26an, 22 urte. Zorionak, Nuriaren partetik.



ARRASATE
Xabi Vallina
Martxoaren 30ean, 13 urte. Zorionak! Etxekoak, Mainer eta Naiara.



ARAMAIO
Ibai Caverio
Martxoaren 6an, 5 urte bete zituen. Zorionak, etxekoan partetik.



ARAMAIO
Joxe Agirre
Martxoaren 26an, 18 urte. Zorionak! Telebistako eta okindegiko lagunak.



ARRASATE
Julen Larrañaga
Martxoaren 25ean, 5 urte. Zorionak, umezaintzako laguntzaren partetik.



ARRASATE
Ane Zuazubiskar
Martxoaren 26an, 5 urte. Zorionak, umezaintzako laguntzaren partetik.



ARRASATE
Errukane Aperribai
Martxoaren 30ean, 33 urte. Zorionak! Txatxilikoan partetik.



ARRASATE
Pepi García
Apirilaren 5ean, 44 urte. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Oihan Uribarren
Martxoaren 31n, 2 urte. Zorionak! Anixe, aitte eta ama.



ARRASATE
Jose González Sutil
Martxoaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak, Txeli, trillero guztien partetik.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.
Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.

Adi!

Hurrengo zenbakian, **martxoaren 28tik apirilaren 12ra** bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu. **Argazkiak martitzenera arte jasoko ditugu, ARRASATE PRESSko egoitzan.**

ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

Aretz Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

gorka ileapaindegia

ordutegia:

asteartetik ostiralera 09:30 - 20:00

larunbatetan 08:00 - 14:00

ferrerias 35
arrasate

943 77 13 78

Gorka
ileapaindegia



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Txirritola

ARAMAIO / Eguaztena / 2002ko martxoaren 27a / 21. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Karobien mapa eta Goiko Errotako maketa egin dituzte

UBANE MADERA

Herriko karobi batzuk non izan diren, erdi apurtuta dauden beste batzuk eta nahiko ondo daudenak non dauden, eta berritutako bi karobiak irudikatzen dituen mapa egin dute Miguel Angel Burgik eta Roberto Aginagaldek. Eta Goiko Errotaren berrikuntzen maketa bat ere egin dute.

Aramaion karobi ugari izan dira antzina. "Hasieran, baso inguruan egiten ziren eta karea goitik behera ekartzen zuten; gero, etxe inguruan egiten hasi ziren karobiak, eta egurra etxeetara ekarri". Halaxe kontatu digu Miguel Angel Burgik, karobien gaineko mapa egin duenetako batek. Askoz ere ugariagoak ei ziren, gainera, karobiak Olaeta aldean, "igual 50 bat-edo desa-

gertuta izango dira Olaetan". Kontuak kontu, karobi mordoa desgertuta daude herrian. Eta, horren aurrean, "daudenak kokatzea eta kontabilizatzea, gutxi gorabehera jakiteko azken urteotan zenbat izan diren" da Miguel Angel Burgik eta Roberto Aginagaldek karobien maparekin lortu gura duten helburua.

Horrekin batera, berritu duten Goiko Errota karobiaren berrikuntza prozesua irudikatzen duen maketa bat ere egin dute bi lagunek, Iban Astondoaren laguntzarekin.

Aurrera begira, berriz, karea egiteko asmoa dute. Baita haren ondoan txondorra egiteko ere. Prozesu biak film batean grabatzea da gura dutena. Eta, hori egin ahal izateko aurrekontuak begiratzen ari dira gaur egun. Horrez gain, Burgik adierazi digunez, Goiko Errotan ezin da karerik egin, ez ditu-eta baldintza egokiak betetzen. Alzagara bidean dagoen karobi bat egokia ei da horretarako, baina, hura ere berritu behar, eta hori egiteko asmoa ere badute. Edozelan ere, karobien inguruan lan egiten segitzeko asmoa dutela jakinarazi digu Burgik, eta aramaioarrak ekimen horretan parte har dezaten animatu gura izan ditu.



ARTXIBOA

Goiko Errota karobiaren gaineko maketa bat ere egin dute.



Euskara ikasleendako familia behar

Aramaioiko Udalak jakinarazi duenez, udan euskara ikastera datorren jendea hartzeko gertu dauden familia euskaldunak behar dira. Egonaldiak, gutxienez, hilabetekoak izango dira, eta hilabete bakoitzean lagun bakarra hartu ahal izango dute; horrez gain, ikaslea hartzen duen etxean, gutxienez, lau lagun bizi beharko dira, eta ikastera datorrenendako logela bat libre izan behar dute. Ikasleak 18 eta 45 urte bitartekoak izango dira. Trukean, familiak 492,83 euro jasoko ditu hilabete bakoitzeko. Izena emateko epea apirilaren 8an bukatuko da./U.M.

HERRITARRENHITZA/Patxi Uribarren • Itzultzaile-idazlea

"Jende asko negarrez horrek nauka saminez"

Garizuma aspaldi izan dugu gogoeta-aldia. Gaiak, baina, ez ditugu beti geuk aukatzen. Batzutan bor-bor agertzen zaizkigu aurrez aurre ibai odoltsu bihurtuta.

Oraingo honetan Espainian torturak bizirik dirauela agertzen digun Unai Romano Igartua gaztearen aurpegi mailatu handitua datorkigu aurrera. Arregi hil zutenetik hona ikusi dugun argazkirik gogorrena.

Ezin izan dute ezkutuan gorde. Ondorioz, nork sinistu horrela lortutako aitortzak? Nork sinistu gaztea horrela ikusi eta ezentzun egiten duen

epaileari? Zer gertatzen ari da "ordena indarrak" deitzen direnen bilguneetan?

Martxoaren 17an urteroko bilera izan zen Arantzazun presoan (politikoa nahiz soziala) eta euren senitartekoen egoera aztertzeko. Testigantza gordin eta negargarri ugari! Estatuak ez du bere legea ere betetzen. Kanpoan egon behar zuten askok barruan jarraitzen dute. Geroago eta sakabanatuago!



"Estatuak ez du bere legea ere betetzen"

Edozer aitzakiak dela eta zigor berriak! Askotan irainduak, mesprezatuak!

Eta gu isilik, Pilatosen antzera eskuak garbituz, aitzakiarik ugari dugulá. Ahaztu egin ditugu, nonbait, Jesusen azken epaiko berbak "...espetsxean nengoen eta bisitatzera etorri zineten..." Eliz agintariak ere isilegi, tortura kasu garbia izan arren! Inoizka igandeko mezan otoitz bat

presoen alde! Beste ezer gutxi.

Zer egin, baina? Gutxienez, ez eskurik garbitu. Presoen senitartekoei laguntza eskaini. Presoen alde lanean dihardutenei begirunea izan eta laguntza eman...Nahi duenak aurkitzen ditu bideak!!!

Kristauok itxaropen dugun Kristo ere torturatu ondoren hil zuten, batzuk ukatu, eta gehienek bakarrik utzi ondoren. Gutxi batzuk izan zituen gurutze-ondoan. Horien artean Maria, bere ama, Jon adiskide leiala, emakume on batzuk...Zein da gure jokaera gure inguruko Jesus minberatuen aurrean?

LABUR

Etxeetako leihoetan Ikurrina ipintzeko deia

Datorren martxoaren 31n, domekan, Aberri Eguna izango da. Hori dela eta, Aramaioiko Batasunak Ikurrina etxeetako balkoietan ipintzeko dei egin die herriko bizilagunei. Era berean, arratsaldean Batasunak Donibane-Lohizunen egingo duen ekitaldira ere gonbidatu ditu erkideak. Aramaioiko Batasunaren esanetan, gaur egun, "Espainiako Estatuak, Frantziako Estatuaren laguntzarekin, benetako euskal identitatea zapaltzen dihardu".

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

ASTE SANTUKO MEZAK

Atzo hasita, Eliza data berezietan murgildu da egunotan. Horren barruan, eguenetik hasi eta domekara arte, Aste Santuko ospakizunak izango dira. Horrela, meza bereziak esango dira: Ibarran 18:00etan eta gainerako auzoetan 19:00ak eta 20:30ak bitartean. Berriz, Pazko Gauean, zapatuan, Ibarran esango dute meza, 21:00etik aurrera. Eta gero, domekan, betiko moduan, bedeinkatutako ur berria eramango dute auzoetan banatzeko. Izan ere, domekatik aurrera, Erramu Domekan bedeinkatutako gurutzeak etxe, solo, ortu eta gainerako lekuetan ipiniko dituzte baserriarrek eta domekan bedeinkatutako erramua erdian ipini eta gero, bedeinkatutako ur berria botako diote gainetik.

LIBURUTEGIA ETA LUDOTEKA

Oporrak iritsi direnez, udal liburutegiak eta ludotekak ere oporrak hartuko dituzte datozen egunotan. Hain zuzen ere, gaur eguaztena, itxiko dituzte bata zein bestea, eta oporretan izango dira datorren apirilaren 8a, astelehenera arte; hortaz, hamar egunez itxita izango dira.

TAMAINA HANDIKO ZABORRAK

Gogoratu beharra dago, Aste Santuko oporrak direla eta, datorren martxoaren 29an, barikuan, batu beharrean, datorren apirilaren 3an, eguaztena, batuko dituztela tamaina handiko zaborrak. Hortaz, bezperan, apirilaren 2an ilunkeran atera beharko dira kalera.

GIZARTEA

Mariseka elkartean argindarra sartzea onartu dute

Albiñako Mariseka elkartean argindarra sartzea erabaki du elkarteko batzarrak. Hain zuzen ere, elkarteak dituen 40 bazkideetatik 25 batu ziren eta gehien-goak baiezkoa eman zion proposamenari. Halaxe kontatu zigun Benito Abarrategik, zuzendaritza batzordeko bokalaka.

Orain, behin betiko aurrekontua onartzea falta da. Hogeita hamar bat mila euro pasatxo behar dituztela kalkulatzeko dute (bost milioi pezeta inguru). Edozelan ere, Mariseka egunerako lan guztiak eginda izango dituztela aurrez ikusi dute.

Orain dela 25 bat urte sortu zen Mariseka elkarte. Hasieratik eguzki plaken bitartez lortu izan dute argia. Baina, sistema horrekin ez zuten nahikoa indar lortzen. Hori dela eta, orain dela 10-12 urte hasi ziren argindarra sartzeko ikerketa egiten, baina, aurrekontu handia zela eta, orain arte hortxe geratu da.



BOTEPRONTOAN/ Paulino Ibañe · Eguzkierripako auzo-alkatea

“Eguzkierripa auzotik zehar hasi zen Aramaiora biztanle gehiago etortzen”

Aramaioko auzo berezi bate-ra egin dugu oraingo honetan: eguzkierripara, hain zuzen ere. Berezia da, baserriak eta bizilagunak zeharo barreiatuta daude-eta Eguzkierripan. Eta, horrek zaildu egiten du auzoko bizimodua. Horrelakoak eta bestelako kontu gehiago esan dizkigu Paulino Ibañek; Ibarran bizi arren, hura da aipatutako auzoko alkatea.

Auzoa da Eguzkierripa?

Auzotzat hartzen da, baina, ez daukagu elizaterik. Honi, lehen “diseminado” esaten zioten; auzoa berez ez dago bilduta, baserriak sakabanatuta daude, hortaz ez dugu auzo gunerik. Bakarra da Aramaion. Auzotzat hartu izan da kaletik bananduta dagoelako. Esan beharra dago, era berean, gauza batzuetarako baserri batzuk hartzen dituela eta beste batzuetarako, ez. Baina, jaiak ere baditugu, Andra Mari, irailaren 8an.

Zenbat baserri eta lagun zarete?

Auzoko jaiak antolatzen dugunok zortzi baserri gara. Hogeita hamar bat lagun bizi dira. Ni kalean bizi naiz, baina, auzo alkatea aukeratu zutenean, Eguzkierripan nengoen.

Esan beharra dago, elizarik ez daukagula, baina bai ermita

bat, hemengo balitz moduan hartzen duguna: Andra Mari. Etxaguengo bidean dago. Gure bilgunea dela esan dezakegu, auzoaren erdialdean dagoelako.


Elkarterik baduzue?

Ez, eta askotan igarri dugu faltan Andra Mari ermitaren inguruan horrelako elkarte bat edukitzea. Izan ere, bestela, gure artean ez dugu elkar ikusten. Baserri gehienek bidea kalera dute zuzenean, hori dela eta, bidean ere ez gara elkartzen. Pentsatu genuen elkarteko lekuren bat izatea, baina, hortxe geratu da. Egia esan auzoa dagoen moduan egonda, askotan errazagoa da kalean batzea auzoan baino.

Izena ere berezia du...

Bai, lekuarekin dago lotuta: eguzkiak jotzen duen erripa (aldapa) bat da. Esan beharra dago, eguzkiak egun osoan jotzen duela auzoan. Zati handi bat mendebaldera begira dago, orduan, goizetik arratsaldeko azkeneko ordura arte, eguzkiak ondo jotzen du. **Badauka beste berezitasunen bat?**

Oso baserri zaharrak. Ematen du hortik hasi zela Aramaio sortzen. Edo, behintzat, hortik hasi zela herri honetara jendea etortzen. Bizkaiara



“Eguzkiak jotzen duen erripa bat da Eguzkierripa. Egun osoan jotzen du eguzkiak”

HERRIKOKONTUAK

SANTA CRUZ APAIZARENA (II)

Udaletxetik salto egin eta gero, errekan ezkutatu eta Errotabarriraino igo zen apaiza. Han, hurrengo goizeko 11:00ak arte izan zen, militarrek inguruak miatzen zituzten bitartean. Hotzak hilda, laguntza eskatu zion gertutik pasatu zen baserriar bati. Hark janaria eraman zion eta gauera arte han egoteko esan zion, orduan, lagun batek lagunduko ziola. Gaua iritsi zen, baita, laguntza ere. Gantzagako Urdungio baserrira eraman zuten apaiza; han zaindu, zauritutako oinak osatu eta jaten eman zioten. Gero, Izpizteko Haitzetan dagoen kobazulo batera eraman zuten, (gaur egun, Santa Cruz Apaizaren Kobazuloa izenarekin ezagutzen da). Esaten duteenez, kobazulo hartan erabaki zuen apaizak, onik atereaz gero, misiolari izango zela. Artzai batek egunero janaria eraman zion. Hiru egunez kobazuloan egon zen apaiza. Eta, osatuta zegoela ikusi zuenean, kobazulotik atera zen. Mendiko bidea hartu eta handik Frantziara alde egin zuen apaizak. Geroago, Santa Cruz apaizak Espainiatik Ameriketara ihes egin zuen eta misiolari izan zen. (“Aramaioko ibarraren iragana eta oraina”).

joateko antzinako bidea Eguzkierripatik pasatzen zen, eta hemengo jendeak ere betidanik izan du Bizkaia aldera joateko joera handia(Etxaguén, Gantzaga...), hizkeran ere igartzen da hori. Ondorioz, Bizkaia aldeko jendea ere auzo honetatik zehar etorri izan da Aramaiora. Eta, Bizkaia aldetik, Eguzkierripatik zehar hasi zen Aramaiora biztanle gehiago etortzen.

Errota bat ere izan zen?

Bai, Aramaioko azkeneko errota. Araneko errota deitzen zen. Eta, duela 30 bat urte, oraindik ere handik lortzen zuten auzokoek eta kaleko baserri batzuek argindarra; garia ehotzeko ere balio zuen. Oso errota indartsua izan zen. Gaur egun, errota beharrean etxebizitza da.

Konponketaren bat egiteko...

Auzolanean ari gara bideak eta erretenak egiten...Ezin gara Udalaren zain egon. Horrela bada, guk egiten ditugu lan gehienak. Bestalde, saneamendu eta bestelakoak falta dira, zain gaude. Udalak onartuta ei dauka proiektua. Edozelan ere, Udalari esango nioke gurekin gehiago akordatzeko.

ERRETRATUZAHARRA

Chevrolet-a hartu eta Elgetara

San Markos egun batean, 50eko hamarkadan, argazkian agerituen laukotea Elgetara joan zen, bazkaltzera.

Laurak ELMA enpresako langileak ziren. Eta Elgetako Martintxo jatetxean bazkaltzeko asmoarekin elkartu ziren egun hartan. Gure berriemaileak adierazi digunez, izen handia zuen orduan Martintxo jatetxeak, bereziki, han egiten zituzten frijituengatik. Gero, hango sukaldaria moja joan zen, eta itxura denez, hark Martintxo jatetxeko sukalde onaren zati handi bat eraman zuen.

Kontuak kontu, gure lau lagunek Martintxon bazkaldu zuten egun hartan, eta ikusten den moduan, oroimenerako argazkia ere atera zuten. Honako hauek ageri dira argazkian: ezkerrekoa Raimundo Vélez de Mendizabal da; haren ondokoa Roberto Arkauz (oso argazkizalea; merkaturatzen ziren makina guztiak erosten ei zituen, gero gauzak grabatu eta Danok Bat elkartearen lagunekin ikusteko); betaurrekoduna Pablo



Zumelaga da (ELMAN zebilen lanean, baina ile apaintzailea eta OCHOA garraio enpresako ordezkarri ere bazen); eta azkena Victor Murgia da (arrandegia zuen, emaztearekin batera). Aurrealdean dagoena Imanol Arizaga Txanbolin da, urte batzuetan

Mondrako atezaina izan zena.

Eta gure lagunaren atzean dagoen automobil galanta Chevrolet markakoa da. Ez zen horrelako auto askorik inguruan, Francoren legeek debekatu egiten zuten eta dibisak ateratzea. Argazkiko Chevrolet-a Roberto

Arkauzendako oparia zen, eta Mexiko ingurutik ekarri zuten.

Argazkia: Raimundo Vélez de Mendizabal
Berriemailea: Raimundo Vélez de Mendizabal
Urtea: 50eko hamarkada

NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

Fagorrek ere aurrera egin du urteotan

Normalean, Arrasateko lekuak zelan aldatzen diren erakusten dizuegu tarte honetan, baina oraingoan lekuak nola aldatu diren baino areago, enpresa bat zelan aldatu den erakutsiko dizuegu. Duela 23 urteko Fagor gaur egungoa baino askoz txikiagoa zen, enpresa asko batu zaizkio-eta. Lantegiarekin batera, lehen zuhaixka zena orain zuhaitz handi bilakatu da.



≈ 1979

Orduko Fagorreko logotipoa beste bat zen, eta Aspes-ko logotiporik ez dago egun. Orduan, semaforoa ere ez zen beharrezkoa.



2002

Lantegia alde batera utzita, deigarria da San Josepeko harrobian zenbat lan egin duten urte hauetan. Mendiko zuloa da horren adierazgarri.


Monte
taberna

Maalako arrabala 2
Tel.: 943 79 20 56

TOLDOS
LECE C/B

Kataide Industrialdea, 14 Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45

Eguzkiari aurre egiten diogu
inork baino hobeto



ABERRI EGUNA 2002



eguerdiko Tetan
DENOK HERRIKO PLAZARA!

Arrasaten, martxoaren 31n.



ARRASATEKO UDALA

Juan Manuel Berrueta

Iturriotz kalea 24 ARRASATE
Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18

Argazkien, koloreen eta oparien jaialdia!

Arco Iris dendetan, kalitatezko argazkiak
eta opariak errebelatu bakoitzeko.

"Urratu eta urretu" txartelarekin lor itzazu 50, 100 edo 150 puntu,
pila itzazu, eta aukera ezazu zure oparia!

250 puntu

450 puntu

800 puntu



30 x 45eko handitzea



Picture CD. Zure argazkiak CD baten



Kodak Ultra Super Flash argazki-kamera




Argazki-albuma



Motxila



Bidaia-poltsa





Liderrak gara hainbat esparrutan:
esfortzuan, dedikazioan, lidertzan eta arrakastan

Multiópticas, liderrak zerbitzu optikotan
Etorri eta ikusi!

Multiópticas-ek Operación Triunfo-ko
kontzertuen bira aurkezten du

R.P.S. 164/99

MULTIOPTICAS

LARRAÑAGA

Tel. 943 76 15 75
BERGARA

Tel. 943 79 29 95
ARRASATE